



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

**GOBERNU JUNTAK 2021.06.01ean EGINDAKO
BILKURAKO AKTA**

LEHENDAKARIA

MAITE ANTON LENO

OÑATI

BOKALAK

GARAZI LARREA ZUMELAGA
AINHOA CABERO GARCIA
MAITANE MUÑOZ GOICOECHEA
ANDER GARAY ZABALETA
GORKA ARTOLA ALBERDI
AINHOA LETE ZABALETA
CRISTINA MARQUINA IGARZA
IRAITZ LAZKANO GARITAONANDIA
IZARO ELORZA ARREGI
ANIK ZUBIZARRETA ARTURO

ANTZUOLA
ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
BERGARA
BERGARA
BERGARA
ELGETA
OÑATI
OÑATI

ETORRI GABEAK

UNAI ELKORO OIANGUREN
MARIA UBARRETXENA CID
ARITZ MURUA ACHA
JOSÉ RAMÓN ZUBIZARRETA ALEGRÍA
EUGENIO OTSOA UGALDE

ARETXABALETA
ARRASATE
ARRASATE
ESKORIATZA
LEINTZ-GATZAGA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA

BELEN TXINTXURRETA IPARRAGIRRE

JUNTAKO KIDE IZAN GABE ETORRIAK

ANDER ELORTONDO BERGARETXE

Behin behineko kontu-hartzailea



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2021eko ekainaren 1ean, 9:30etan, Mankomunitateko lehendakaria, Maite Anton Leno anderea, mahaiburu dela, Gobernu Juntaren bilkura berezia hasi da, goian aipaturikoak bertan direla.

Martxoaren 31ko 11/2020 Errege Lege Dekretuaren azken xedapen bigarrenean ezarritakoarekin bat etorriz (11/2020 Errege Lege Dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19ri aurre egiteko gizarte- eta ekonomia-arloko premiazko neurri osagarriak onartzen dituen, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen duena), Gobernu Juntaren bilkura berezi hau bideokonferentziaren bidez egin da, JITSI MEET aplikazioa erabiliz.

1.- Aurreko bilkurako akta onartzea

Gobernu Juntak aho batez ONARTU DU 2021eko apirilaren 27an egindako ohiko bilkurako aktaren zirriborroa.

2.- ZERBITZU OROKORRAK

2.1.- Foru Kontratazio Zentrala

- **Gas horniduraren kontratua luzatzea**

Zegokion espedientea izapidetu ondoren, Departamentuko Foru Diputatuak, 2019ko maiatzaren 13ko Foru Aginduaren bitartez, ebatzi zuen "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez gas naturalaren hornidura kontratatzeako esparru akordioa" EDP COMERCIALIZADORA SAU enpresarekin burutzea.

Mankomunitate honek, espediente honi atxikia zegoenez, aipatu esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitu zuen. Kontratu honek bi urteko indarraldia du, urtebeteko bi luzapen egiteko aukerarekin.

2020ko azaroaren 27ko Diputatuaren Foru Aginduaren bidez onetsi zen aipatutako esparru akordioari jarraipena ematea EDP CLIENTES SAU enpresarekin, EDP COMERCIALIZADORA SAU-ren sozietate onuradun denarekin.

2021eko maiatzaren 4ko Foru Diputatuaren Agindu bitartez, Esparru Akordio hau urtebetez luzatzea ebatzi denez (1. luzapena), eta Mankomunitateak gas naturalaren hornidura beharra izaten jarraitzen duenez, bere kontratu eratorriaren iraupenaren luzapena ebaztea dagokio.

Hori dela eta, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Urtebetez luzatzea (1. luzapena) gas naturalaren hornidurarako EDP CLIENTES SAU enpresarekin sinatutako kontratu eratorria.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- **Jasogailuen mantentze lanen espedienteari atxikitzea**

Mankomunitate honetako Gobernu Juntak, 2011ko maiatzaren 18an egindako bilkuran, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Foru Kontratazioen Zentralak aurrera eramango duen eskuratze zentralizatuko sistemari atxikitzea erabaki zuen, horretarako Foru Aldundiarekin zegokion hitzarmena sinatuz.

Aipatu Zentralak, esparru-akordioaren prozedura bitartez, jasogailuen mantentze lanen kontratazio espedientea irekitzeko asmoa du.

Eta Mankomunitate honek ere zerbitzu hau behar dituenek, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Jasogailuen mantentze lanak kontratatzeko Gipuzkoako Kontratazioen Zentralak irekiko duen esparru-akordioaren espedienteari atxikitzea, 2011ko maiatzaren 18ko Gobernu Juntak onartutako hitzarmenean, eta 2011ko otsailaren 22ko 2011/3 Foru Dekretuan ezarritako eran eta baldintzetan.
2. Konpromisoa hartzea enpresa esleipendunari kontratu eratorria esleitzeko Foru Aldundiak esparru akordioa formalizatu ondoren eta hark adierazitako epean, betiere.

2.2.- Hizkuntza Eskolaren Arrasateko gela desplazatua kokatzeko Arrasateko Udalarekin sinatutako lankidetza hitzarmena luzatzea

2020ko urriaren 30ean sinatu zuen Mankomunitate honek Arrasateko Udalarekin Hizkuntza Eskolaren Arrasateko gela desplazatua Mankomunitatearen ikasgela batean kokatzeko hitzarmena, doako lagapen baten bitartez.

Aipatu hitzarmenean jasotzen da bere iraupena ikasturte batekoa izango dela, 2020-2021 ikasturtea, baina bi aldean adostasunarekin 2021-2022 ikasturterako luzatu ahal izango dela.

Orain, Arrasateko Udalak Mankomunitateari eskatu dio 2021-2022 ikasturterako aipatu hitzarmenaren luzapena eta ikasgela asteen bi arratsaldetan erabili beharrean lau arratsaldetan erabiltzeko aukera ematea, astelehenetik ostegunera.

Arrasateko Udalaren eskaera azterturik, eta kontuan hartuta momentuz behintzat Mankomunitateak ez duela ikasgela hori arratsaldeetan erabiltzeko aurreikuspenik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Aipatu hitzarmena 2021-2022 ikasturterako luzatzea, hau da, 2022ko maiatzera arte.
2. Lau arratsaldetan erabiltzeko Arrasateko Udalaren eskaera ere onartzea honako baldintza hauetan:
 - Betiere Mankomunitatearen beharrek lehentasuna izango dute. Beraz, Mankomunitateak Arrasateko Udalarik lagatutako ikasgela honen beharra izanez gero, Udalak berehala Mankomunitateari utzi beharko dio.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

- Lokalaren garbiketari dagokionez, Arrasateko Udalak astean hiru ordu garbitzeari dagokion kostea ordaindu beharko dio Mankomunitateari.

3.- INGURUMENA

3.1.- Hondakin arriskutsuak kudeatzeko kontratazio espedientea

Mankomunitateak Garbiguneetan eta bere beste zerbitzu batzuetan bildutako etxeetako hondakin arriskutsuak kudeatzeko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusita, Gobernu Juntak, aho batez, ZERA ERABAKI DU:

1. Aipatu kontratazio espedientea onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Administrazio – klausula partikularren eta baldintza teknikoaren agiriak onartzea.
4. Esleitze prozedura irekitzea.

3.2.- Garbiguneetako materiala atera eta hezkuntza helburuekin erabiltzeko Oñatiko Lanbide Heziketa Institutuak egindako eskaera

Oñatiko Lanbide Heziketako Institutuak Mankomunitateari bere garbiguneetako hondakinak atera eta hezkuntza helburuekin erabiltzeko baimena eskatu dio. “Mantenu elektromekanikoa” zikloaren baitan motor elektrikoak atera nahi dituzte garbigunetik motor hauekin ikasgelan praktikak egin eta berriro garbigunera bueltatzeko.

Eskaera hau Ingurumen Batzordean aztertu ondoren, eta honen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu ikastetxeari baimena ematea Mankomunitatearen garbiguneetatik hondakinak atera eta irakaskuntzan berrerabiltzeko, honako baldintza hauetan:
 - Segurtasun baldintzak.
 - Mankomunitatea ez da egingo erantzule berreskuratutako hondakinen egoerarena. Beraz, hondakin hauek egoera txarrean, edota egoera arriskutsuan egonda ere (moztu dezaketen ertzak, korto zirkuitututako elektra tresnak, gas balbulak funtzionamendu okerrarekin, etab.), Debagoieneko Mankomunitateak ez du izango inongo erantzukizunik, berak baimendutako birziklatzaileak jaso dezakeen kalteetan.
 - Mankomunitateak baimendutako birziklatzaileak errespetatu beharko du, Garbiguneetatik jasotako hondakinak bete behar duten garraio baldintzak. Hala ere, garraio lanetan istripu bat izanez gero, Debagoieneko Mankomunitateak ez du izango istripu honekiko inongo erantzukizunik.



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

- Birziklatzaileak ezingo du Debagoieneko Mankomunitateko instalazioetan (Garbiguneetan) berreskuratutako aparatuak manipulatu, eta ezta aurre manipulatu (adibidez jatorrizko hondakina desmuntatu pieza konkretu bat eramateko).
 - Ezin izango dira atera Garbiguneetatik hondakin arriskutsu likidoak, Mankomunitateak ezin baitu bermatu ontzian dagoen likidoa ontziaren etiketan adierazten dena dela ala ez, ezta ontziaren egoera estrukturala hondakin hori gorde eta garraiatzeko.
- Hondakinekin egingo den erabileraren baldintzak.
- Hondakin hauen berreskurapenetik ezingo da etekin ekonomikorik atera, berriz konpondu eta salduz.
 - Hondakin hauek desmuntatuz gero piezak lortzeko, baliagarriak ez diren osagai edo zatiei, berriz kudeaketa egokia emango zaie, Garbigunera eramanez sobratutako piezak. Manipulazioa eman den tokitik gertuen dagoen Garbigunera eramango dira.
 - Berreskuratutako hondakin hauekin egin daitezkeen ikerketak edota hondakin hauetatik sortutako garapenek izan dezaketen publizitate edo publikazioetan, espresuki Debagoieneko Mankomunitateari eskertuko zaio proiektuan izan duen kolaborazioa. Beste hainbat enpresa eta erakunde ere izanez gero proiektu horretan parte hartu dutenak, gutxienez Debagoieneko Mankomunitatearen izena aipatuko da.
- Eskatzaileen artean egongo diren lehentasunak.
- Helburu berarekin ere beste erakunde batzuk egiten badute eskaera bera; hau da hondakinak berreskuratzearena, guztien artean Debagoieneko eremu geografikoan kokatutakoak izango dute lehentasuna.

3.3.- Txatarra saltzeko NAPARRA BERGARA SLU enpresarekin sinatutako kontratua luzatzea

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2018ko uztailaren 27an sinatu zuen Mankomunitateak NAPARRA BERGARA, S.L.U. enpresarekin Garbiguneetan eta bere beste instalazio batzuetan jasotako hondakin metalikoak (txatarra) saltzeko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan jasotzen da bi urteko iraupena izango duela, 2018ko irailaren 1etik aurrera, eta urtero luzatu ahal izango dela, gehienez zortzi urtez, hasierako denboraldia barne.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta Ingurumen Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua beste urtebetez luzatzea (2. luzapena), hau da, 2022ko abuztuaren 31 arte.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

3.4.- Mankomunitateko udalerrietako hondakinak bildu eta garraiatzeko UTE DEBAGOIENA 2017 aldi baterako enpresa elkartearekin sinatutako kontratua luzatzea

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2017ko irailaren 25ean sinatu zuen Mankomunitateak UTE DEBAGOIENA 2017 enpresa elkartearekin 8 udalerrietako hondakinak bildu eta garraiatzeko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan jasotzen da hiru urteko iraupena izango duela, 2017ko irailaren 30aren 22:00etatik aurrera, eta bi aldeen adostasunez urtebetez, bi alditan, eta 6 hilabetez, azkeneko aldiari, luzatu ahal izango dela, gehienez ere 5 urte eta 6 hilabetez, hasierako aldiari ere barne.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta Ingurumen Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua beste urtebetez luzatzea (2. luzapena), hau da, 2022ko irailaren 30aren 22:00ak arte.

3.5.- Eraikuntza eta eraispén hondakin 1. lotea kudeatzeko NAPARRA BERGARA, S.L. enpresarekin sinatutako kontratua luzatzea

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2020ko urriaren 1ean sinatu zuen Mankomunitateak NAPARRA BERGARA, S.L. enpresarekin eraikuntza eta eraispén hondakin 1 lotea, hau da, hondakin hautatuak, kudeatzeko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan jasotzen da urtebeteko iraupena izango duela 2020ko urriaren 1etik aurrera, eta kontratazio organoak urtebetez luzatu ahal duela.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta Ingurumen Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua urtebetez luzatzea), hau da, 2022ko irailaren 30era arte.

3.6.- Eraikuntza eta eraispén hondakin 2. lotea kudeatzeko BAÑU-ETXE, S.L. enpresarekin sinatutako kontratua luzatzea

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2020ko urriaren 1ean sinatu zuen Mankomunitateak BAÑU-ETXE, S.L. enpresarekin eraikuntza eta eraispén hondakin 2 lotea, hau da, hondakin ez arriskutsu nahastuak, kudeatzeko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan jasotzen da urtebeteko iraupena izango duela 2020ko urriaren 1etik aurrera, eta kontratazio organoak urtebetez luzatu ahal duela.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta Ingurumen Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua urtebetez luzatzea, hau da, 2022ko irailaren 30era arte.



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

3.7.- Epeleko zabortegian atmosferara egindako gas emisioak eta inmisioak neurtu eta kontrolatzeko EUROCONTROL, S.A. enpresarekin sinatutako kontratua luzatzea

Zegokion kontratazio prozedura jarraitu ondoren, 2020ko urriaren 1ean sinatu zuen Mankomunitateak EUROCONTROL, S.A. enpresarekin Epeleko zabortegian atmosferara egindako gas emisioak eta inmisioak neurtu eta kontrolatzeko kontratua. Kontratu honetako hirugarren klausulan jasotzen da urtebeteko iraupena izango duela izenpetzen den datatik zenbatzen hasita eta kontratazio organoak urtero luzatu ahal izango duela, bost urtez gehienez ere, hasierako epea barne.

Izapidetutako espedientea ikusirik, eta Ingurumen Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu kontratua urtebetez luzatzea (1. luzapena), hau da, 2022ko irailaren 30era arte.

3.8- Hondakin bilketa zerbitzuko ibilgailu baten salerosketarako MENDIALDEA MANKOMUNITATEAREKIN lankidetzaz hitzarmena

Mankomunitate honek Minimatic ibilgailu bat du orain erabiltzen ez duena. Atzeko kargako "FARID MINIMATIC (RENAULT)" 1982HTL matrikuladun ibilgailua 2013. urtean erosi zuen Debagoieneko Mankomunitateak eskualdean ezartzen hasi ziren atez-ateko bilketa zerbitzuetan erabiltzeko. 2015 eta 2016. urteen artean ordea, udalek egindako eskaerari erantzunez, Aretxabaleta, Bergara eta Eskoriatzako atez-ateko bilketa sistema (Bergararen kasuan bilketa mota mixtoa: ontzi-arinak eta papera-kartoia edukiontzi bidez eta organika eta errefusa atez-ate) aldatu eta alboko kargako edukiontzi bidezko sistema martxan jarri zen udalerrri hauetan. Ondorioz, Mankomunitatearen ibilgailu mota beharrak aldatu ziren, atzeko kargako ibilgailuen beharra gutxitu eta alboko kargako ibilgailuen beharra handiagotu zelarik.

Etxeko hondakinen bilketarako UTE DEBAGOIENA 2017 enpresa elkartearekin 2017.09.30ean sinatutako kontratuan izandako hainbat aldaketa eta gero, aipatu kontratistaren eskuetan zegoen 1982HTL ibilgailua 2018ko maiatzean jaso zuen atzera Debagoieneko Mankomunitateak. Orduz geroztik, Mankomunitateak ez du ibilgailu hau erabili, eskaintzen dituen zerbitzuetarako ez baita beharrezkoa. Etorkizun hurbilertainean ere ez da ibilgailu hau erabiltzeko beharrik aurreikusten eta, beraz, ibilgailua saltzea izango litzateke Mankomunitatearentzat egokiena.

Bestalde, MENDIALDEA MANKOMUNITATEAK horrelako ibilgailu baten beharra du bere hondakin bilketa zerbitzurako.

2020ko udazkenean, MENDIALDEA MANKOMUNITATEA Debagoieneko Mankomunitatearekin harremanetan jarri zen 1982HTL ibilgailu hau erosteko zuen interesa azaltzeko. Ibilgailuaren inguruko informazio guztia bidali zitzaion eta ibilgailua zuzenean ikusteko bertaratu ondoren, ibilgailua erosteko asmo irmoa azaldu zuen.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Kontuan hartuta Herri Administrazioen Ondareari buruzko 33/2003 Legeak Administrazio Publikoen arteko zuzeneko besterentzea ahalbidetzen duela, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

- Aipatu ibilgailuaren salerosketarako MENDIALDEA Mankomunitatearekin lankidetzat hitzarmena sinatzea ondorengo klausulen arabera:

1.- MENDIALDEA MANKOMUNITATEAK DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEAREN 1982HTL matrikuladun Minimatic ibilgailua hilabete batez erabiliko du bere hondakin bilketa zerbitzuan, gero erosteko proba gisa.

2.- Ibilgailu hau saldu ahal izateko, DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEAK hainbat konponketa egin dizkio eta ITVa ere pasa dio, guztira 4.308,8 € ordainduz. Zenbateko honetatik, 2.437,99 €, gehi %21-ko BEZa, DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEAREN kontura joango dira eta gainontzeko 1.870,86 €, gehi %21-ko BEZa, MENDIALDEA MANKOMUNITATEAREN kontura.

3.- Hilabeteko proba epea igaro ondoren, MENDIALDEA MANKOMUNITATEAK ibilgailua erosi nahi badu, 25.000 €-ko prezioa ordaindu beharko dio DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEARI.

4.- Aldiz, MENDIALDEA MANKOMUNITATEAK ibilgailua ez erostea erabakitzen badu, DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEARI 2.000 € (gehi %10-ko BEZa) ordaindu beharko dio, ibilgailuaren alokairu gisa, gehi aipatutako konponketei dagokien 1.870,86 €-ko zenbatekoa (gehi %21-ko BEZa).

5.- Hilabeteko proba epe honetan istripu baten ondorioz ibilgailua ez erabilgarri geldituko balitz, MENDIALDEA MANKOMUNITATEAK 25.000 €-ak edo ibilgailua konpontzearen kostua ordaindu beharko lizkioke DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEARI.

6.- MENDIALDEA MANKOMUNITATEAK jaso beharko du ibilgailua, horretarako aurrez dagokion aseguru eginez.

7.- Hitzarmen honek izaera administratiboa du eta urriaren 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak zuzenduko ditu haren interpretazioa eta garapena. Erlazio honen baitan edo hitzarmen honetatik eratorri daitezkeen desadostasun edo gatazka judizial guztietarako, bi aldeak administrazioarekiko auzien jurisdikzio eskudunaren mende jarriko dira.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

3.9.- RAFRINOR, S.L. enpresak jarritako kontratazio-arloko errekurtsu berezia, sukalde olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko zerbitzua emateko kontratua esleitzeko erabakiaren aurka; berri ematea

Idazkariak sukaldeko olio erabilia biltzeko eta kudeatzeko kontratua ECOGRAS RECUPERACIÓN Y RECICLADO, S.L. enpresari esleitzeko erabakiaren aurka RAFRINOR, S.L. enpresak jarritako kontratazio-arloko errekurtsu bereziaren berri eman du, Baita ere, errekurtsu horri buruzko Mankomunitatearen txostenaren berri. Orain, Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoak bere ebazpena eman beharko du.

Gobernu Junta jakinaren gainean gelditu da.

4.- GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

4.1.- Enpresa Ekintzetarako Zentroa; luzapen eskaerak

- A.G.A. 2. urterako luzapena

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2022ko ekainaren 14ra arte, luzatzea Arrasateko Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 5-IM industri modulua erabiltzeko baimena, A.G.A. ekintzaileari emana, Gobernu Juntaren 2020ko maiatzaren 26ko erabaki bitartez.

- M.M.C.H. 2. urterako luzapena

Enplegu eta Prestakuntza Batzordearen proposamenari jarraituz eta Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Araudian ezarritakoaren arabera, Gobernu Juntak, aho batez, ondorengo ERABAKI DU:

- Urtebetez, hau da, 2022ko ekainaren 7ra arte, luzatzea Aretxabaletako Enpresa Ekintzetarako Zentroaren 2-AR modulua erabiltzeko baimena, M.M.C.H. ekintzaileari emana, Gobernu Juntaren 2020ko otsailaren 25eko erabaki bitartez.

4.2.- Eskolatze Osagarriko Programa antolatu, kudeatu eta garatzeko kontratazio espedientea

Mankomunitatearen Eskolatze Osagarriko Programa antolatu, kudeatu eta garatzeko prozedura ireki bidez bideratu den kontratazio espedientea ikusirik.



DEBAGOIENKO MANKOMUNITATEA

Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Bideratu den kontratazio-espedita onartzea.
2. Gastua onartzea.
3. Kontratazio hau arautuko duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak onartzea.
4. Dagokion esleitze-prozedura irekitzea.

4.3.- Enpresa Ekimenetarako Zentroaren Araudiaren aldaketaren hasierako onespina

Azken aldian, pandemiaren eraginez, etxean aritu diren ekintzaileen eskaerak jasotzen ari garela eta, Garapen Agentzia Batzordeak Enpresa Ekimenetarako Zentroaren kudeaketa egokitzeko araudian aldaketa txiki batzuk egitea proposatzen du. Honako aldaketa hauek:

- Gaur egun sei hilabetekoa den enpresa ekimenaren gehienezko erate antzintasuna urtebetara luzatzea (Araudiaren 4, b) artikulua).
- JEZ/IAEren kopia egiaztatu beharra kentzea (Araudiaren 8, a) artikulua).
- Faxe erabiltzeko aukera kentzea (Araudiaren 11 artikulua).

Bideratu den espedita ikusita eta Garapen Ekonomikorako Agentzia Batzordearen proposamena jarraituz, Gobernu Juntak aho batez ondorengo ERABAKI DU:

1.- Hasierako onspina ematea Enpresa Ekintzetarako Zentroaren Erregelamenduaren proposatutako aldaketei.

2.- Erabaki hau eta honetaz bideratu den espedita informazio publikorako ikusgai jartzea 30 lanegunez, iragarkia Mankomunitateko iragarki-taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko delarik, interesatuek bidezko iruditzen zaizkien erreklamazioak eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Informazio publikoko denboraldi horretan ez bada inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkezten, hasierako onspina duen erabaki hau behin betiko onartutzat joko da.

5.- KIROLAK

5.1.- Mankomunitatearen diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzea eta Debagoieneko Kirol Elkarteei jardura fisikoaren eta kirolaren arloan prestakuntza programa arautuak eta ez-arautuak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzari hasierako onspina ematea

Proposatutako diru-laguntzen Plan Estrategikoa ikusirik, Gobernu Juntak aho batez ZERA ERABAKI DU:

1. Mankomunitatearen ondorengo diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzea:

Nafarroa Etorbidea, 17 – 20500 Arrasate (Gipuzkoa)



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA

DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEAREN DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

38/2003 dirulaguntzen legearen 887/2006 erregelamenduko 12.2 artikulua araberaz: "Plan estrategikoaren edukia, helburuak, gauzatze-kostuak eta finantzaketa-iturriak azaltzen dituen memoria bat egitera mugatu ahal izango da, honako kasu hauetan:

a) [...]

b) Ministerio Saileko titularrak, esku-hartze publikorako tresna gisa duten garrantzi ekonomiko edo sozial eskasa dela-eta, modu arrazoituan zehazten dituen dirulaguntzak."

Debagoieneko Mankomunitateko diru-laguntzak orotara 34.000€ besterik ez dira eta agerikoa da esku-hartze publiko esanguratsurik ezin dela eman kopuru horrekin. Kirolaren merkatuan 9.000€ eta lan merkatuan 25.000€ garrantzi gutxiak dira.

A.- 16 eta 18 urte tarteko gazteen lan eta gizarte txertaketa errazteko programa.

Zergatiak:

Gazteen enplegu gabezia da gure gizarteak duen arazo garrantzitsuenetariko bat. Pandemiak eragindako krisialdi ekonomikoak eta ondorioz sortutako lanpostuen galerak, are eta gehiago eragotzi du kualifikaziorik gabeko gazteen lan merkatuan txertatzeko aukerak. Lan txertaketa lortzeko gazteek dituzten eragozpenak tipologia ezberdinetakoak dira, batetik, kanpo arrazoiak daude, besteak beste, lan merkatuaren ahultasuna eta, bestetik, barrukoak, gazteen prestakuntza eta kualifikazioaren ezarekin zerikusirik dauzkatenak.

Zalantzarik gabe, kualifikazio profesionala eta oinarrizko prestakuntza ez izateak, zaildu eta murriztu egiten ditu, enplegu gabeko gazteak, txertaketa laborala eta soziala lortzeko aukerak. Egoera hori denboran luzatu egiten bada, egoera sozial konplexuak ondorioztatu daitezke non gogogabea, uzkurdura eta geldotasuna areagotu egiten dira, zenbait kasuetan bazterkeri sozialeko problematika bat sortuz.

Helburuak:

Egoera horiek ahal den neurrian eragozteko, erakundeek, azkenengo hamarkadetan, prestakuntza programa osagarriak bultzatu dituzte, arautuak zein arautu gabekoak, beti ere, derrigorrezko bigarren mailako titulazio gabe hezkuntza sistema laga duten gazteek prestakuntza eta oinarrizko kualifikazio bat lortu dezaten helburuarekin. Beti ere, programa horien helburua lanbide prestakuntza arautura itzultzea edo lan merkatuan txertatzea da. Programa horiek lan txertatzea errazteko lagunduko duten ekintza osagarriak eta orientazio egokia garatzea behar dituzte, baita ere, txertatze emaitza hobetoak lortzeko banakako jarraipenak eta beste ekintza garrantzitsuen beharra dute.

Hori guztia kontuan hartuta, Debagoieneko Mankomunitateak, eskualdean horrelako programak garatzen dituzten erakunde pribatuentzat laguntza lerro bat artikulatu nahi du. Beti ere, gazte horien kualifikazioa eta oinarrizko prestakuntza osatuko duten ekintzak bideratzeko.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

Horrela 16 eta 18 urte tarteko Debagoieneko udalerriren batean bizi diren gazteei zuzendutako orientazio eta txertatze soziala eta laborala sustatuko duten ekintzak areagotzeko laguntzak ematea nahi da.

B.- Kirol-dirulaguntzak

Helburuak:

Diru-laguntza hauen xedea da Mankomunitatearen lurralde-eremuan egoitza duten kirol-elkarteei, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko prestakuntzarako laguntza ematea. Zehazki, honako jarduera hauetarako:

A) Debagoieneko kirol-elkarteei atxikitako kirol-teknikariak, epaileak, komisarioak, arbitroak eta kronometratzaileak egindako prestakuntza arautua.

B) Debagoieneko kirol-elkarteei atxikitako kirol-teknikariak, epaileak, komisarioak, arbitroak eta kronometratzaileak egindako arautu gabeko prestakuntza.

Kostuak:

1600.490.341.00.01 Kirol ditulaguntzak	9.000€
7100.481.241.00.01 Enplegu arrisku egoeretako diru-laguntza	25.000€

Finantzaketa iturriak:

Kasu bietan finantzaketa laugarren kapituluko udal ekarpen arruntez egingo da.

2. Kirol Elkarteei jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan prestakuntza programa arautuak eta ez-arautuak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren onespena mahai gainean uztea erabaki da Gobernu Juntaren hurrengo bilkurara arte, euskararen gaia hobeto aztertu ahal izateko.

6.- LEHENDAKARITZA

6.1.- Lehendakaritzaren ebazpenak

Lehendakariak ondorengo ebazpenen berri eman du:

21/25.- Hasiera eman dakiola aurreko ekitaldiko aurrekontuko ordainketa kredituak ekitaldi honetako aurrekontuan txertatzeko espedienteari, aipatutako xedapenetan jasotako erregulazioari jarraiki. Honako tramiteak jasoko ditu espedienteak: Kontu-hartzailearen txostena eta organo eskudunaren onarpena.

EGINBIDEA.- Mankomunitate honetako Kontu-hartzaileari dekretu hau data honetan helarazi zaiela jasota uzteko.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

21/26.- Lehenengoa.- Onartzea Mankomunitate honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu txertaketen modalitatekoa, 2021-KALD-000002-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

GASTUAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	338.328,61
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	298.777,13
6	INBERTSIO ERREALAK	81.400,10
TXERTATUTAKO GERAKINAK GUZTIRA		718.505,84

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	718.505,84
FINANTZAKETA GUZTIRA		718.505,84

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontu-hartzailetza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

21/27.- OLATZ IZAGIRRE langilearen eskaera onartzea, maiatzaren 3tik urtea bukatu arte bere lanaldia heren baten murriztuz.

21/28.- 2021ko apirileko nomina arrunta onartzea ondorengo laburpenaz:

Langileen ordainsariak	Soldata	Gizarte segurantza	Elkarkidetzak	Km	Atxikipenak	Likidoa
Karguak	3.087,54 €	1.167,10 €	0,00 €			
Funtzionarioak	60.178,26 €	13.043,96 €	1.736,76 €	20,45 €		
Interinoak	16.907,65 €	5.927,77 €	230,31 €	40,60 €		
Laboralak	44.849,14 €	15.972,18 €	1.021,74 €			
Guztira	125.022,59 €	36.111,01 €	2.988,81 €	61,05 €	34.295,80 €	90.787,84 €

21/29.- 21/08 faktura-zerrenda onartzea eta beraien ordainketa agintzea, guztira HOGEITA HAMAHIRU MILA BERREHUN ETA HAMABOST EURO ETA BERROGEITA HAMAIIKA ZENTIMO (33.215,51 €).

21/30.- 1.- Olio biltzeko erabilitako 22 edukiontzia saltzeko kontratua OLIO3R, S.L. enpresari esleitzea edukiontziko 400 €-ko prezioan, gehi BEZA.



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

2.- Aipatu enpresarekin dagokion kontratua sinatzea erabaki hau jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

21/31.- 21/09 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira BERREHUN ETA LAUROGEITA BEDERATZI MILA BEDERATZIEHUN ETA BERROGEI EURO ETA HOGEITA ZORTZI ZENTIMO (289.940,28 €).

21/32.- 21/10 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira HOGEITAHIRU MILA BEDERATZIEHUN ETA ZAZPI EURO ETA BERROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (23.907,53 €).

21/33.- 21/11 faktura-zerrenda onartzea eta berauen ordainketa agintzea, guztira EHUN ETA LAUROGEITA BI MILA ZORTZIEHUN ETA HAMAZORTZI EURO ETA HIRUROGEITA BOST ZENTIMO (182.818,65 €).

7.- GALDE-ERREGUAK

- Gobernu Juntaren hurrengo bilkura ekainaren 22an egitea adostu da, ekainaren 15ean egin beharrean.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 10:30etan, bukatutzat eman da bilkura.

LEHENDAKARIA

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIA